



# Pil-pilean

TRUKINGOIA

Soraluzeko hilabetekaria  
2024ko azaroa · 416 alea

**ZENBAKI HONEKIN BATERA**  
HARIAN GEHIGARRIA



**PLAZARAKO  
PRESTATZEN**



# PIL-PILEAN 416

2024ko azaroa

Azaleko argazkiaren egilea:  
Juan Fernandez.

## Aurkibidea

- |    |                                                                  |                                                                                        |
|----|------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------|
| 4  | <b>Bote prontuan</b> Amets Arzalluz Antia                        | IRITZIA                                                                                |
| 6  | <b>Begira</b> Antologikoa                                        | 3                                                                                      |
| 8  | <b>Zer berri</b> Aktualitateko albisteak                         | <b>Neuretik</b> Lorea de Castro Lete<br><i>Urratsez urrats euskal dantzan gustura!</i> |
| 14 | <b>Argazki bidez</b> Gaztañerre azoka                            | 16                                                                                     |
| 18 | <b>Erreportajea</b> Plaza dantzen ikastaroa indar betean         | <b>Gutunak</b> Mauri Muro <i>Deba ibaian irudi lotsagarria</i>                         |
| 24 | <b>Kirola</b> Dibertigarri bezain gogorra                        | 16                                                                                     |
| 26 | <b>Kultura</b> Blues Hotsak, Koska bat gorago                    | <b>Komiki tira</b>                                                                     |
| 28 | <b>Gure artistak</b> Gorka Jauregi                               | 17                                                                                     |
| 30 | <b>Zerbitzuak</b> Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | <b>Hausnarketa</b> Badakizkizu euskal dantzak?                                         |
|    |                                                                  | 17                                                                                     |
|    |                                                                  | <b>Puntua</b> Xabier Iñurrieta <i>Dibxosozko ur-xafra</i>                              |



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

Ander Gomez  
ander@pilpilean.eus

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi  
**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak) diruz lagundua



**SORALUZEKO UDALA**

# Urratsez urrats, euskal dantzan gustura!



LOREA DE CASTRO LETE

**A**urten Urrats Dantza taldeak helduentzako euskal dantza ikastaroa jarri du martxan. Ez naiz inoiz dantzaria izan (parrandetako dantza saio inprobisatuez gain!) baina dantzari fina izan ez arren, izena ematea erabaki nuen. Urritik ekainera bitartean, asteazken edo ostegunetan elkartzen gara, 19:00etan maila oinarrizkoa dugunak eta ordubete beranduago maila aurreratuan daudenak. Adin guztietako ikasleak gaude, gehienak emakumeak.

Egia esateko, hasiera batean, banuen halako beldur eszeniko bat-edo. Lotsa agian? Erreparoa eta ilusioa aurrez aurre. Izan ere, eszenatoki gainera sarri igo izan naizen arren, dantza ez da nire puntu indartsua eta, horregatik, nire buruari jarri diodan erronka izan da izen emate hau: "baietz dantza egiten ikasi". Ez neukan espektatiba handirik, baina nire harridurarako, gutxinaka-gutxinaka, pausoak ikasten eta barneratzen joan naiz eta, egia esan, oso gustura nabil. Taldeko giroa naturala eta sana da. Ez da inor epaitzen, ez dago presarik. Denok dugu gure erritmoan ikasten joateko aukera. Hanka sartutakoan ere, norbere buruaz barre egitea zeinen garrantzitsua den!

Dagoeneko ikasi ditut fandangoa, arin-arina eta banakoaren pausuak. Gaztañerreko erromerian ere izan nuen aukera dantza egiteko. Orain arte inbidiaz ikusten nituen lagunak plazan dantzan, baina orain neu ere jaiaren parte aktibo naizela sentitzen dut. Dantza horiek ikasi eta, batez ere, parte hartu ahal izatea aukera ederra da niretzat.

Pauso ez gain, aste hauetan ikasi dut, adibidez, fandangoa eta arin arina dantzatzeko modu "diferentea" dugula Plaentxian. Agurrak ere baditu bere "desberdintasunak" beste herrietako pausoekin alderatuta. Hortan ere berezi plazentziatarrak!

Azken asteetako esperientzia honek mantra bat gogorarazi dit: "irten konfort gunetik, egin gauza berriak". Ez naiz dantzari bikaina bihurtu(ko), baina ez zait inporta: ikasten ari naiz, gozaten ari naiz. Horregatik, animatzen dut pertsona oro bere buruari erronkak jarri eta konfort gunetik irtetzera.

Azken finean, bizitza bera ere, urratsez urrats, dantza eder bat baino ez da.

**ANIMATZEN DUT  
PERTSONA ORO BERE  
BURUARI ERRONKAK  
JARRI ETA KONFORT  
GUNETIK IRTETZERA**

# “Berriz ikasi beharko genuke pixka bat minberagoak izaten”

---

TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA ZANGITU

---

Soraluze BHI Institutuak eta jendartEKIN-ek gonbidatuta, Amets Arzalluz Antia bertsolariak eta idazleak *Miñan* liburuaz eta migrazioaz berba egin zuen antzokian DBH 4ko ikasleak eta zenbait herritar eta guraso entzule zituela.

## **'Miñan' liburuak ikasgai mordera ditu. Zuk zein nabarmenduko zenuke?**

Askotan migranteari begiratzen diogu bere beharretatik eta ezinetatik, nahi-ezta ere, goitik behera. Erakutsi dit datorren pertsona bakoitza eskola bat dela eta Ibrahimaren kasuan, irakurtzen eta idazten oso-oso justu zekien pertsona batek zenbaterainoko kultura eta beste alfabeto eta beste literatura bat gorde dezakeen. Migranteari bere ezintasunetatik baino bere gaitasunetatik begiratzen ere erakutsi dit eta hori inportantea da kontsiderazio humano bat emateko dimentsio guztietan.

## **Liburua irakurri dutenek zer transmititzen dizute?**

Harridura eta larritasun bat. Istoria hau ez da bakarrik 2018an Euskal Herrira iritsi zen mutiko batena, da egunero gure herria eta mundu erdia zeharkatzen duen istoria bat. Gure aktualitatearen aurreko otzantasun edo pasibitate nahigabekoa dago oinarrituta, baita ere, ezjakintasunean eta distantzian; hurbilgotik begiratzen duzunean, harritu eta larritu egiten zara mundua nola dabilen. Hurbiltzen bazara halako pertsona batengana deskubritzen duzu ia-ia badakiguna baina zehazki ez dakiguna. Zehaztasun maila horretan jakiteak beste era batera eragiten du. Transmittitzen didate halako min bat. Nik uste dut min hartzea ere inportantea dela eta berriz ikasi beharko genukeela pixka bat minberagoak izaten, eta, sentsibleago.

## **'Euskal Herria harrera herria'; Irungo Harrera Sarean diharduzu boluntario. Horrela da?**

Da gehiago aldarrikapen bat. Badago horretan ari den jendea eta badago atekak eta begiak ixten ahalegintzen den jendea eta instituzioak ere. Aldarrikapen izateak erakusten du ez dela nahiko genukeen herri hori. Askotan atea ixten zaio behar duen jendeari eta gauzak zail jartzen zaizkio nahiko bizitza zaila dakarrenari. Ardura du

edozeinek, baina, bereziki, instituzioek handia dute, eta, halako hitz onez eta keinu oneriko tartekakoz aparte lan politiko handia dago egitea, besteak beste, pedagogia.

## **Herritarrei zer esango zenieke?**

Mila formula daude, handiak iruditzen zaizkigunak edo txikiak iruditzen zaizkigunak eta ez direnak hain txikiak. Adibidez, lagunen arteko konbertsazio baten edo whatsapp taldeko txiste baten aurrean erreakzio minimo bat eta izpiritu kritiko pixka bat erakustea, hori ere bada erantzuteko modu bat, ez bakarrik boluntario modura ibiltzea. Mila modu daude eta bakoitzak bere formula eta neurria aurkitu behar dio, denak dira lagungarri, konplexurik gabe eta lotsarik gabe eta ausardiaz egin behar da. Hurbiltzen zarenean asko aldatzen du eta asko errazten du. Ausartzea pixka bat.

## **Askok ez dute nahi migranteekin ondo bizi gaitzen.**

Ikara bat egoten da eta ikara horren atzean ezezagutza handia dago; ezezagutza erakutsi egiten da, elikatu egiten da. Interes politiko handiak daude gai honen atzean, instrumentalizatuta daude eta arazo asko poltsa horretara botatzeko ere erabiltzen da. Ezagutza eta hurbiltasun pixka batekin ikarak ere gaintzen dira, norbere lotsak eta konplexuak, eta, horrek aldatzen du perspektiba. Bakoitzak ikusiko du nondik jotzen duen. Nire ildoak gai honetan argi samar ikusten dut eta ahalegintzen naiz, eta, uste dut ezezagutza horren barrera hautsi egin behar dela.

## **Liburuan argi ikusten da munduan zenbat sufritu daitekeen, baina ez gara horretaz jabetzen.**

Diseinatuta dago horretarako eta horren atzean ganantzia handi bat dago. Migranteari iristen bada hain bide zailean hona eta hemen egoera irregularrean uzten bada hain luze, ebidentea da hola dagoen pertsona lanean hasiko dela edozein kondiziotan eta esklabo perfektua izango dela. Sistema, askotan, ezkutatuta dauden bizkar horien gainean oinarritzen da. Diseinatuta dago inork sufritu dezan eta sufrimendu horri ganantzia, etekina ateratzeko. Gogorra da, baina hurbilduz deskubritzen duzu, parte handi baten, horrela funtzionatzen duela.











## Antologikoa

**ARGAZKIA:** GAIZKA AZKARATE

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO

Zapatu eguerdian, Soraluzeko Musika Eskolako ikasle eta irakasleek, Ezoziko Ama abesbatzako zenbait kidek eta beste hainbat kolaboratzailek, 'Bluesaren historia erritmotik' ikuskizuna eskaini zuten Antzokian. Aretoa goraino bete zen eta emanaldiak iraun zuen ordubete pasatxoan herritarrek miresmenez jarraitu zuten musikarien jarduna, baita Unai Azkarate 'Azkaiter'-en kontakizuna ere, bluesaren gaineko datuz eta bitxikeriz hornitua. Konbinazio horrek emaitza bikaina eman zuen eta han izan ginena, une batzuetan, Soraluze Mississipiren ibai ertzeko herria izan zela sentitu genuen... Beste behin, baieztatu da Deba ibaiaren ertz hauetan ere badagoela musikarako indar berezi bat.

# Emaile berri asko aurten

EMAILE ZEIN EMATE ALDETIK AURREIKUSPEN GUZTIAK BETE DIRA SORALUZEN

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: BIXENTE OLAIZOLA

Soraluzeko Odol Emaileen Elkarteak hilabete honetan, azaroaren 22an, egin zuen aurtengo azken odol-ateratzea eta urte osoko datuak jaso zituzten. Haien arabera, "aurreikuspen guztiak oso ondo" bete dira Soraluzen.

## Odol berria

Zenbaketara joz, jakinarazi dute 2024an 189 odol poltsa eraman dituela Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak Soraluzetik eta kopuru horrekin aurreikuspen guztiak bete dira Soraluzen.

Gainera, Soraluzeko elkartetik azpimarratu dutenez, aurtengo urtean, 25 odol emaile berri animatu dira odola ematera eta hori "oso-oso inportantea" dela uste dute, "belaunaldi "zaharrak" gazteen ekarpenarekin ordezkatzeko bidean" baitoaz.

## Aurtengo omenduak

Osterantzean, urtero hainbat emaile omentzen dira eta aurtengoei egin berri diete aitorza, Enekoitz Igartuari -25 odol emate-, Mikel Valerori -50 odol emate- eta Elena Madrideri -60 odol emate-.

## Hitzorduak poltsikoan

2024ko odol emateak bukatuta, laster aterako dituzte 2025erako Soraluzeko



Gil eta Unamuno urtarrileko hitzorduan.



Azkarate, Gisasola eta Alberdi maiatzean.



Rodriguez eta Cuenca irailean.



Mikel Recio azaroko hitzorduan.

hitzorduak. Aurten egin duten moduan, formatu txikiko egutegiak banatuko dituzte herritarren artean eta herriko zenbait puntutan, jendeak eskuragarri izan ditzan. Ohiko moduan, bi hiletik behin egingo dituzte odol ateratzeak Itxaropena Erretiratuen Elkartearen eta bi modutara hartu ahal izango dira txandak: [Gotatanta.eus](http://Gotatanta.eus) webgunean hitzordua baino bi egun lehenago edo bezperan eta, telefonoz egunean bertan: 943 00 78 85.

## Odol emateak

### Urtarrilak 26:

45 odol-poltsa / 3 berri.

### Martxoak 22:

17 odol-poltsa / berri 1.

### Maiatzak 24:

30 odol-poltsa / 8 berri.

### Uztailak 19:

30 odol-poltsa / 7 berri.

### Irailak 27:

42 odol-poltsa / 4 berri.

### Azaroak 22:

25 odol-poltsa / 2 berri.



Ainhoa Castillo eta Nerea Gabilondo ile-apaindegiko mostradorean.

## AINHOA 18 URTEZ IBILI ZEN EDURNE-N; NEREA JEAN LOUIS DAVID-EN ETA PEDROREKIN IBILITAKOA DA

20 bat urte daramatzat ile-apaintzaile.

**Lantaldeko aldaketez aparte, izango da besterik Negabin?**

Bai. Ile-apaindegiari berari ere bueltatxo bat emango diogu. Obra batzuk egin berri ditugu, argiztapena... eta orain margotu eta bestelako detailtxo batzuk jarriko dizkiogu.

**Eta zerbitzuei dagokienez?**

65 urtetik gorako erretiratuendako zerbitzu berezitua eskainiko dugu martitzenetan; eguneroko zerbitzua baino merkeagoa izango da eta egun horretan lehenatasuna izango dute erretiratuek. Bestalde, txandak telefonoz hartuko ditugu edozein egunetan: 943 75 12 63 edo 620 71 14 81 (Nerea) eta 697 63 61 74 (Ainhoa). Orduetgia honakoa da: 09:30etik 12:30era eta 15:00etatik 19:00etara; zapatuetan goizez, 09:00etatik 13:00etara. Gure asmoa da urte osoan zabalik izatea, jai-egunetan bakarrik ixtea. Adibidez, abuztu osoan zabalik izan nahi dugu.

**Orotara, beraz, zein zerbitzu eskainiko dituzue?**

Ile-apaintzailtzan sartzen den guztia. Moztu, kolorea eman, orraztu... Ainhoa, adibidez, kolorearekin oso ona da, tinduak egiten, metxak, brilluak, ilearendako tratamenduak... Eskarmentu luzea dugu biok ile-apaintzaile modura.

# "Eskarmentu luzea dugu biok ile-apaintzaile modura"

**NEREA GABILONDO ETA AINHOA CASTILLO**  
NEGABIKO ILE-APAINAZAILEAK

Abenduan, berritasunak datoz Negabi ile-apaindegira. Abenduaren 3tik Nerea Gabilondo eta Ainhoa Castillo ile-apaintzaileak arituko dira bertan lanean, goizez Nerea Gabilondo eta arratsaldean Ainhoa Castillo. Denetariko zerbitzua eskainiko dute. **Ainhoa, zuk eskarmentu luzea duzu ile-apaintzaile modura, ezta?**

Ni 18 urtez ibili nintzen Eibarko Edurne ile-apaindegian lanean eta han gehien egiten nuena zen kolorearekin lan egin, baina, denetik landu nuen. Hemen, berriz, 11 urte egin

ditut. 20 urterekin hasi nintzen ile-apaintzaile modura eta 34 urteko esperientzia daukat. **Nerea, zu, berriz, amatsunagatikoa baimenetik zatoz bueltan, nahiz eta zeuk ere esperientzia luzea izan...** Bai. Orain arte umeeekin egon naiz, baina aurten, haurreskolan sartu dugu txikiena, bestea eskolan dago eta hartara neu goizetan lanean hasiko naiz. Gustura eta gogotsu etorriko naiz lanera. Hemen 12 urte daramatzat dagoeneko eta lehenago Pedrokekin eta Jean Louis Daviden ibilitakoa naiz; guztira,



# Presen auzia

EAJ-REN ETA PSE-EE-REN IRITZIAK PRESEN BIDE-ORRIAREKIKO

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO

Soraluzeko Udaleko oposizioako alderdiek, EAJk eta PSE-EEK, udal-gobernuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Merlin proiektuaren eta presen inguruan adostu zutenaren gaineko iritziak helarazi dizkiote Pil-pileani. Jeltzaleak eta sozialistak kexu agertu dira planteamenduaren berri lau egun lehenago izan zutelako. Planteamenduaren mamiari dagokionez, iritzi ezberdinak agertu dituzte.

## EAJ proiektua galdeketa bidez berrestearen alde

EAJk presa bakoitzaren gaineko proiektua zehaztu eta ondoren, proiektu bakoitza herri-galdeketa bidez berrestea proposatu du eta eskatu du pauso horiek eman bitartean presa guztiak "daudenetan mantentzea".

Jeltzaleen iritziak, alkateak "unilateralki" adostu du bide-orria aldundiarekin, EAJrekin "ezer" adostu gabe, eta beronen "komunikazioa ez da, orain arte bezala, udaletxean ordezkariak daukagun alderdiekin adostu". Jeltzaleen esanetan, bide-orria ez du Udalak adostu, "alkateak" baizik eta ondoren, alde bakarrez publiko egin izanak, orain arteko adostasuna "puskatu" du.

Bide-orriaren mamiari dagokionez, EAJk azpimarratu du "eztabaida gutxien sortzen



EAJren udal-taldeko kideak presen gaineko dokumentuak aztertzen. EAJ

duten ur-jauziak eraistea" erabaki dela, "eztabaida gehien sortzen duten ur-jauzien erabakia atzeratuz, 2025era". Jeltzaleen ustez, "irtenbide partziala" da, "denbora irabazteko helburuarekin" hartu dena eta ohartarazi dute

## EAJ: "ALKATEAK UNILATERALKI ADOSTU DU BIDE-ORRIA ALDUNDIAREKIN"

## "ESKATZEN DUGU PROIEKTUAK DAUDENEAN, PUBLIKO EGIN ETA HERRI-GALDEKETA BIDEZ BERRESTEA"

erabakitakoak ez duela "herri mailako uholde arriskua ekiditen".

EAJk aitortu du presen auziarekiko iritzi ezberdinak dituztela alderdi barruan eta azaroan, alderdikideekin egindako asanblean, finkatu dutela alderdiak duen iritzia hemendik aurrera eman beharreko pausoen inguruan. Ondorengoak dira EAJk proposatzen dituen pausoak: "Eraitsi behar diren hiru ur-jauzien proiektua esku artean daukagunean, publiko egin, soraluzetarrok egin behar denaren informazio zuzena eta zehatza izan dezagun. Ondoren herri-galdeketa egin". Horrekin batera, EAJk eskatu du "pauso hauek ematen ez diren bitartean, ur-jauziak daudenetan mantentzea".

**PSE-EErentzat uholde-arriskua murriztea da lehentasuna**

Alderdi sozialistak uholde-arriskua murriztea jotzen du lehentasuntzat, presek etorkizuneko hirigintza proiektuak baldintza ez ditzaten.

Sozialisten iritziz, udal-gobernuak "era prezipitatu" komunikatu du bide-orria eta eskertuko zuketan "beste modu batean" egin izan balu, "oposizioari haren berri emateko azken momentura arte itxaron gabe".

Gainerakoan, Patricia Borinaga bozeramailearen ustez, erabakia ez da "nobedadea" izan. Bere esanetan, "aukera hau mahai gainean zegoen udal-hauteskundearen aurretik ere" eta "gainera aktuazio honek ez du soluzionatzen ez ingurumen



Patricia Borinaga. ARTXIBOKO ARGAZKIA

**PSE-EE: "EZ DA NOBEDADEA. AUKERA HAU MAHAI GAINEAN ZEGOEN HAUTESKUNDE AURRETIK ERE"**

helburua, ez eta uholde-arriskua murriztearena ere".

Borinagaren iritziz, aldundiarekin adostutako bide-orriak "lehen fase bat" izan behar du eta ostean, "eseri, debate serio bat izan eta erabaki behar da zer egin". Erabakia lehenbailehen hartzeko premiaz ere ohartarazi du: "Ezin dugu pasatu beste bi urte erabaki bat hartzeko".

Sozialistentzat garrantzitsua da proiektua garrantzitsua da proiektua garatzea eta uholde-arriskua murriztea, faktore horrek hirigintza-planak baldintzatzen dituelako. "Presek ezin dute kondizionatu Hirigintza Plan Orokorra, Olaldeko proiektua edo beste edozein plan. Horiek aho batez onartu ziren eta bagenekien udalez gaindiko eskaerak zituztela, bete beharrekoak direnak".

**GIPUZKOA**

**Ekin.**  
Gipuzkoa oparagoa izateko.

**Zaindu.**  
Pertsona guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituen.

**Bizi.**  
Ondo eta duin bizi daitez.

**GIPUZKOA**  
Foru Aldundia

# Argiaren faktura aztergai

ETXEKO FAKTURA ELEKTRIKOA ULERTZEKO JARRAIBIDEAK

Azken urteetan, etxeko faktura elektrikoak aldatetak jasan ditu eta gaur egun dokumentu konplexu eta ulergaitza bihurtu da herritarrentzat.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundearen arabera, kontsumitzaileen %11k soilik ulertzen du. Izan ere, fakturan hainbat kontzeptu aipatzen dira, baina hauek ulertzeko oinarritzko ezagutza tekniko batzuk izan behar dira. Ondorengo artikuluan, etxeko faktura elektrikoak ulertzeko gakoak izango ditugu hizpide.

## Kontratututako potentzia eta energia kontsumoa

Kontratututako potentziak aldi berean martxan jarri ditzakezun aparatu elektriko kantitatea mugatzen du; KiloWatt (kW) da bere unitatea. Kontsumitutako energiak, berriz, erabilitako energia kantitatea zehazten du eta KiloWatt ordu (kWh) da bere unitatea. Ordutegi-tarifak edo erabilera-denboraren tarifak eguneko orduaren arabera aldatzen dira. Momenturik garestiena goizeko 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 18:00etatik 20:00etara bitartekoa izan ohi da. Edonola ere, badira kontratuak eguneko ordu guztietarako tarifa bera eskaintzen dutenak.

**Merkatu erregulatua eta librea**  
Elektrizitatearen sektorean bi merkatu mota daude,



erregulatua eta librea, eta kontsumitzaileak kontratatzerako momentuan, bi merkatu horien artean aukera dezake. Argiaren merkatu erregulatua Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioa eskaintzen du (PVPC). Tarifa honek merkatu elektrikoak araututako eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioak gainbegiraturako prezioak eskaintzen ditu. Merkatu librean, berriz, argia, gasa eta mantentze-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa ugari daude, eta beraiek markatzen dituzte prezioak.

**KONTSUMITZAILEEN  
ERAKUNDEAREN  
ARABERA, %11K SOILIK  
ULERTZEN DUTE  
ARGIAREN FAKTURA**

## Faktura murrizteko neurriak

Faktura murriztu nahi baduzu, ondorengo ekintza hauek har ditzakezu kontuan: etxetresna elektriko eraginkorrak erabiltzea (A etiketa); deskonektatu kargagailuak eta behar ez dituzun ekipoak; aprobetxatu argi naturala; berokuntzaren eta aire girotuaren erabilera erregulatzea; potentzia optimizatzea.



*energia.debegesa.eus*  
*agenda2030@debegesa.eus*  
943 82 01 10.

# Fakturaren atalak

**Kontratuaren eta titularraren datuak**

**Fakturazio datuak**

**Kostuen laburpena eta guztira**

**KOSTUEN LABURPENA**

- Kontsumitutako energia
- Potentzia
- Zergak
- Zerbitzuak
- BEZ



**KONTRATUAREN ETA TITULARRAREN DATUAK**

- Titularra
- Horniduraren helbidea
- Kontratutako potentzia
- Kontratu zenbakia
- Kontratuaren amaiera data

**FAKTURAZIO DATUAK**

- Faktura zenbakia
- Fakturazio periodoa
- Fakturatutako egunak
- Emisio data
- Epe muga
- Kobratze data
- Kontu korrontea

**Potentzia**

**Energia terminoa**

**Bono soziala**

**Zerga  
Zerbitzuak  
BEZ**

**Horniduraren bestelako informazioa**



**HORNIDURAREN BESTELAKO INFORMAZIOA**

CUPS: Hornidura-puntuaren kode bateratuak argi eta garbi identifikatzen du instalazioa.

**BONO SOZIALA**

Bonu sozial elektrikoa baliabide gutxiko familiei laguntzeko neurria da, energia merkeago saltzen baitzaie. Gaur egun, energiaren sektoreko enpresa guztiek (banatzaileek, ekoizleek eta merkatuzatzaileek) ordaindu behar dute; beraz, kontzeptu hori fakturretan kontzeptu gisa sartu da edo tarifetan txertatu da.

**ZERBITZUAK**

Kontagailuaren alokairua behar den zerbitzu bakarra da, eta kontagailurik jabetzan ez dagoenean agertzen da. Prezio arautua du.

Merkatu librean ohikoa da beste zerbitzu batzuk kontratatzea; benetan beharrezkoa den baloratzen du, eta behar ez bada, baja eskatzen du, kosturik gabe noiz egin daitekeen berrikusi ondoren.



# Ederra eta oparoa

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: CRISTINA LASKURAIN, JUAN FERNANDEZ, VANESA OROZCO ETA MIKEL VALERO

Zapore ona laga du aurtengo Gaztañerre azokak eta haren bueltako egunak. Erregetxeak iaz baino oparoago luzitu zuen eta herritarrak animoso ibili ziren goizetik han-hemenka erosketak egin, sagardo freskoa edan, pintxoren bat jan, animaliei begiratu eta lagun artean berriketan. Baserritarren omenaldia ere biribila, hunkigarria eta betea izan zen eta Urrats Dantza Taldeko dantzariak ikuskizun berritua oparitu zieten ikusleei. Gaztañerrekoa azoka kutuna da herritarrendako eta horren erakusle da ateratzen dioten erretratu mordoa. Segidako orrietan Cristina Laskurainek, Juan Fernandezek, Vanesa Orozcok eta Mikel Valerok partekatutakoak.







## GUTUNAK

### Deba ibaian irudi lotsagarria

**MAURI MURO**  
HERRITARRA

Osintxu-Soraluze muga inguruan, ibaiko zona batean, adarrak, enborrak... pilatuta ikusten dihardut hainbat hilabetetan. Bidegorritik egunero paseatzean, etxera egundoko haserrearekin ailegatzen naiz. Ibaiaren garbiketari buruzko hitzaldiak, presei buruzkoak... baina egunero utzikeria hori (zona gehiagotan ere bai).

Egunotan ari gara ikusten DANAK Valentziako erkidegoan eragin dituen txikizioak eta nire haserrea handitu egiten da, are gehiago 220 pertsona baino gehiago hil egin direnean ubideak beharrezko baldintzetan ez izateagatik eta Valentziako erkidegoko

presidente Mazonen (PP) inkompetentziarengatik. Orain errua beste norbaitena da eta abar. Aurpegi gogorra behar da eta lotsagabe hutsak izan.

Orain, nire buruari galdetzen diot: Euskadin, eta zehazki, Debabarrenean eta Debagoienean halako gertakari bat emango balitz, hildakoekin eta halako txikizioarekin, zeinena izango litzateke ardura? Diputazioarena? URA Agentziarena?

DANAK (tanta hotzak) kontrolatzeko zailak dira, baina argazkian ikusten den kaka piloa bai kontrola daiteke garbiketa batekin, zezenak harrapatu baino lehen, hartara, kalteak txikiagoak izango liriateke. Udalak gaiari buruz berba egin beharko luke esandako bi erakundeekin eta neurriak hartu ahalik eta lasterren garbitzeko.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

## KOMIKI TIRA





**ek!**

Eibarko ...eta kitto!  
Euskara Elkarteko  
hedabidea

**dkt**

Debabarreneko  
Komunikazio  
Taldea



# Lurrari lotuak

**MIRIAN ARRIZABALAGA  
ETA IÑAKI ANSOLA  
BARATZEZAINA ETA ARTZAINA**

Elgoibarko Mausitxa baserrian elkartu ditugu Mirian Arrizabalaga eta Iñaki Ansola baserriko jardunaz eta lehen sektoreaz berba egiteko. Bere garaian, biek ala biek erabaki zuten baserriko jardunari segida ematea eta halaxe bizi dira orain, lurrari eta eguzkiari lotuak.

**Testua:** Egoitz Unamuno.

**Argazkiak:** Gurutze Ariznabarreta.

**U**dazkena da, neguaren ataria. Zein lanetan diharduzue garai honetan?  
**Mirian Arrizabalaga:** Esango nuke kontrako bidean gaudela (barreak). Ni, berez, denboraldi gogorrena bukatzen. Udako landaketa denak garbituta, negukoak landatuta eta orain ongarrri berdeekin hastekotan.

**Iñaki Ansola:** Gu, guztiz kontrara. Guretzat ikasturte hasiera modukoa da. Niretzat urteko garairik gogorrena da hau eta politena ere bai; ilusio garai bat. Hasten dira arkumeak jaiotzen eta ziklo dena jartzen da martxan. Ardiez gain badauzkagu behi batzuk ere eta laster hasiko gara barrura sartzen. Horrek lana gehitzen du.

**Nola antolatzen duzue eguna?**

**M.A.:** Azaroan gaude, eguna dezente moztu du eta lurrera joateko argitasuna behar dut. Negutegietan argirik ez jartzea erabaki genuen, bestela ere nahiko ordu baditugu-eta lanerako. Beraz, garaiotan pixkat berandutxoago mugitzen gara. Egunean banaketa egitea tokatzen bada, uzta biltzen aritzen naiz, eta eguraldiak uzten baldin badu, azkenengo ereinketak egiten.

**I.A.:** Orduan oporrak hartzeko moduan orain, ezta?

**M.A.:** Hiru egun hartu ditut, oraingoz. (Barreak)

**I.A.:** Ni egun batean jaikitzen naiz zazpiretan eta hurrengoan goizeko bostetan. Ez dut izaten ordutegi finkorik jaikitzeko eta ezta oheratzeko ere. Goizean jaio diren arkumeak organizatzen ditugu. Arkumeren bat goseak baldin badago, esnea eman... Errapeak zaindu eta jaten eman ardiei... Kanpora atera... Oherako ere ez daukagu ordurik. Atzo gaueko hamarretarako ohean nengoan, baina goizeko ordu-



**“Negutegietan argirik ez jartzea erabaki genuen, bestela ere nahiko ordu baditugu-eta lanerako”**

**“Oso astuna egiten zaidana da burokrazia. Azkenengo urteetan asko hazi da”**

**“Lurrarekiko kontaktua meditazio moduko bat ere izan daiteke momentu batzuetan”**

**MIRIAN ARRIZABALAGA BADIOLA** ITZIAR, 1983  
Doniene Haundi baserrian jaioa. Ikasketaz ingeniari teknikoa da, eta 2009an ekin zion profesionalki baratzagintza ekologikoari. Duela hamabi urtetik, Biolurreko lehendakaria da eta Amillubi proiektuko zuzendaritzako kidea ere bada.



**“Niretzat urteko garairik gogorrena da hau eta politena ere bai; ilusioz betetako garai bat da”**

**“Erosten duen horri erakutsi behar diogu lurrari lotutako abeltzantza egiten dugula”**

**“Iaz, ia berrogei ardi hil zizkigun txakur batek. Tarteka etortzen zen eta hiltzen zizkigun”**

**IÑAKI ANSOLA SALEGI** ELGOIBAR, 1984

Mausitxa baserrian jaioa. Goi mailako ziklo bat ikasi zuen Fraisoro nekazal eskolan. 2004an ekin zion artzaintzan eta gaztagintzan profesionalki lan egiteari eta harrezkero bertan dihardu.

bietarako kortan ardiekin. Gogorra izaten da, baina niretzat ilusioz betetako garai bat da. Lan askokoa, baina dotorea.

**Gainerakoan, nolako ari da izaten 2024. urtea?**

**M.A.:** Baratzerako oso txarra! Otsailean hogeitau gurututan egon ginen hamabost bat egunetan eta aurrreratu zen behar ez zena. Maiatza oso hotza izan zen. Gogoratzen naiz Itziarren bost graduko goizak izan genituela. Landaketekin asmatu ezinda ibili ginen. Uda ere antzera joan da: argitasun gutxi, euri asko, lurra goxatu ezinda, landareak sufritzen... Eta uzta eskasak. Gainera, kostan nabarmenagoa izan da, euri gehiago izan dugulako. Beste urteekin alderatuta, eskasagoa izan da. Ez bakarrik Euskal Herrian. Aurten justu Britainiako baratzezain batzuekin ere harremana egin dut eta eurek ere nahiko urte eskasa izan dute. Orain negutegian ahalik eta gehien aprobeztatuko dugu espazioa, negua ahalik eta ondoen pasatu eta datorren urtea hobea izango den itxaropenarekin.

**I.A.:** Esaten dute feria txarrik ez dela izaten denentzako eta nik firmatuko nuke aurtengoa moduko urte bat (barreak). Aurten eguzki oso gutxi izan da eta eduki dugu belarra ikaragarri. Kanpoak oso-oso berde egon dira, baina belar hori oso biguna izan da eta ardiek eta behiek beherakoa izan dute askotan. Baina egon da bolumena. Alde horretatik begiraturata, guretzako ez da izan hain urte txarra. Iazkoa okerragoa izan zen. Udaberria oso lehorra izan zen, eta ez genuen izan janik. Aurten, soberan. Makala, baina soberan.

Igartzen da azkenengo urteetan klima aldaketa. Ikusten ditugu neguak askoz ere suabeagoak direla. Urtarrilean, hogeitau gradu eta arbolak loretan! Aurtengo uda ere oso atipikoa izan da. Badago zerbait atzetik. Animalietan ere igartzen da. Aztoramen puntu hori... Hor badago aldaketaren bat.

**Ofizioa beharko da horri aurre egiteko. Zuek non ikasi duzue ofizioa?**

**M.A.:** Nik esango nuke ia dena etxean ikasi dudala, nahiz eta ez izan ekologikoan, lurrari lotutako ekoizpena egin izan delako etxean. Horrez gain, lurra hobeto zaintzeko formazio laburrak egin izan ditugu Biolur elkartearen bitartez, Fraisoron, baina oinarria etxean jaso dut.

**I.A.:** Gu biok baserrian jaiotakoak gara eta ume-umetatik ikusi dugu gure aurrekoek zelan egiten zuten lan. Ondorioz, ohitura batzuk hartzen joan gara umetatik. Niri tokatu izan zait gurasoekin lan egitea eta ohitu naiz euren moduetara. Ez da erraza izaten aitari edo amari esatea 'hau horrela egin behar dugu'. Aldaketa hori nahiko konplikatu izaten da. Nahikoa



## “Amillubik ilusioa piztu du”

**“Baratzegintza ekologikoaren arloan Amillubi proiektua nobedade garrantzitsua izan da.**

Amillubi Zestoako Iraetako erriberan dagoen baserri bat da. Lurrak erosteko aukera sortu zen eta iaz diru bilketa bat egin genuen lur horiek erosteko, batez ere, ikusten genuelako Biolurrek dituen bi helburuei erantzuten ziela: alde batetik, erreleboaren gaiari, lehen sektore osoan daukagun arazo handi bati, eta bestetik, lurra bilatzeari. Aliatu dezente lortu genituen eta bailarako udalen laguntzarekin bi pertsona jardun erdiz liberatzea lortu genuen. Orain, abenduaren 1ean, beteko da urtebete proiektua plazaratu genuela. Bide onean goaz. Oraindik ez daukagu lurrak erosteko diru dena bilduta, baina gehiena bai, eta lurra erabiltzen hasita gaude: udan baratzezinok porrua egin dugu, okinek garia egin nahi dute, babarruna ere landatu genuen, baina eguraldiagatik ez da ondo joan... Asmoa da zati batean proiektu finko bat garatzea, baina zehazteko dago eraikina eta lurrak nola erabiliko diren. Normalean lehen sektoretik albiste grisak datoz eta ikusi dugu proiektu honek ilusioa piztu duela. Baditu aukerak zabaltzeko eta ilusio horri helduta goaz aurrera”.

**MIRIAN ARRIZABALAGA BADIOLA**

diskusio izaten dira. Nik ere oro har etxean ikasi dut baina gero ikasketak egin nituen Fraisoron, hainbat ikastaro. Ondo etortzen da ikustea besteek zer egiten duten, gutxienez jakiteko zer ez den egin behar. Munduari ireki eta ikusi zer dagoen. Makinaria aldetik, informatika aldetik, eguneratu egin gara gu ere.

### **Zer egiten zaizue zailena?**

**M.A.:** Lagun batek esaten zidan: “Ez dago landaketa zailik!”. “Zaila dena da denak batera egitea”, esan nion. Batzuetan frustrantea egiten da badakigulako nola egin eta ez garelako iristen egitera. Argi daukagu eguraldiak asko eragiten digula baina horren aurka egiterik ez daukagula. Lagatzen duenean, egin dezakegu, eta ez duenean lagatzen, ez.

Oso astuna egiten zaidana da burokrazia. Azkenengo urteetan asko hazi da eta horretan jartzea asko kostatzen zait. Nik erabaki dut nire lana izatea lurrari lotua eta alde txarrak onartzen ditut, baina gero inposatzen dizkigute kanpotik beste gauza pila



bat bai edo bai ikasi behar ditugunak, eta ikusten duguna da beste ofizio batzuetan ez dituztela halako lan desberdinak egin beharrik. Esango nuke autonomo lan egiten dutenei lotuta dihoan zerbait dela.

**I.A.:** Nik okerren daroatena da nire eskuetatik kanpo gelditzen den hori. Adibidez, gaur hamabost egun, Gipuzkoan mingain urdin positibo bat antzeman zuten, eta orain, behartzen gaituzte ardi denak bakunatzera. Gure kasuan, pasa den astelehenean bakunatu genituen eta izan genituen hainbat abortu, hil zitzaigun ardi bat... Badakigu zein diren bakunaren ondorioak, baina ez dakigu gaitzak zer sortzen duen. Gaitza ez dugu ezagutzen. Horrelako beste hainbat gauza daude goitik agintzen dizkigutenak eta behartuta gaudenak betetzera. Beste adibide bat da Ticket Bai. Nire amak laga egin ditu lehen egiten zituen hainbat lan. Beste lan bat eta beste kostu bat gehiago. Horrek eskema denak apurtzen dizkigu.

Bestalde, aurreko urtean, oso gaizki ibili ginen txakurren gaiarekin. Gero eta txakur gehiago dago



eta nik ondo ikusten dut, baina tentuz jokatu behar da. laz, ia berrogei ardi hil zizkigun txakur batek. Tarteka etortzen zen eta hiltzen zizkigun. Sekulako inpotentzia sentitzen dugu. Deitu Udaltzaingora, deitu ertzainei, jarri salaketa eta erantzuten digute ardiak hobeto zaintzeko.

Badakigu gure eguneroko lana zein den, baina kanpotik datozen lanek, burokratikoek, dela mingain urdinaren gaiak, txakurrenak... Horiek sortzen didate niri kezka handiena.

#### **Eta alderantziz, zer da gehien estimatzen duzuen?**

**M.A.:** Berez uzta jasotzeak izan beharko luke, baina normalean bilketa ez da nire lan gogokoena izaten, aurten uzta hobeak gustura bilduko nituzkeen arren. Egunerokoan lurrarekiko kontaktua meditazio moduko bat ere izan daiteke momentu batzuetan: mugikorra alde batera laga, landareak nola dauden begira jarri... Bakardade momentu horiek.

**I.A.:** Bai, gure ofizioan momentu asko pasatzen ditugu bakarrik. Niri animalia artean ibiltzea asko gustatzen zait eta horrek asko betetzen nau. Arku-meak jaiotzea... Azkenengo urteetan, zortez, nahiko

ondo joan zaigu txapelketetan, eta jendeak zoriontzen gaituenean, pentsatzen dugu: “Zeozero ondo egiten dihardugu”. Eskerrak!

#### **Ondo egiteari eta kalitateari begira, zer da zuek bereziki zaintzen duzuen?**

**M.A.:** Gure oinarria lurra zaintzea eta hobetzea da, eta gero, jatekoaren zaporea zaintzea eta jaten duguna garaikoa izatea. Haziak eta landareak lortzeko, berriz, gertuko sarea baliatzen dugu.

**I.A.:** Gu ez gara gai Gaztelako jendearekin bolumenean lehiatzeko eta, beraz, egin behar duguna da merkatuan bereiztu eta erosten duen horri erakutsi lurrari lotutako nekazaritza edo abeltzantza egiten dugula. Nire ustez, jende batek gero eta gehiago begiratzen dio erosten duen produktuari eta horrek ingurumenean duen eraginari.

**M.A.:** Nik ez dakit. Batzuetan iruditzen zait desinformazio handia dagoela, eta jendeak, amets batean bezala, uste duela edozein saltokitan topatzen dituen barazki freskoak oso kilometro gutxira ekoiztu direla, baina ez. Esango nuke jende askok ez duela pentsatu ere egiten, batez ere, barazkiei begira. Ez



dute usaintzen elikagaien industria nondik nora doan.

**I.A.:** Pentsatu behar dugu jaten dugunaren %15-25 bitartean ekoizten dugula hemen. Gainerakoa kanpotik dator. Eta etorri beharrean dago, bertan gero eta gutxiago sortzen dugulako.

**M.A.:** Hogeita bost esan duzu, baina ez dakit inork ongi kalkulatu duen, nik %4 ere entzun izan baitut.

**I.A.:** Jakina, ni ari nintzen haragi sektoreaz...

**Zuek nola saltzen duzue? Zuzenean ala zeharkako bideak erabilia?**

**M.A.:** Guk hiru bide ditugu. Bata, merkatua, Deban. Normalean, astean bitan joaten gara. Kontsumo taldeak ere baditugu, taldetxo bat Deban eta beste bat Eibarren, eta denda txikietan ere saltzen dugu. Herriko bi dendatan eta jatetxeren batean ere bai. Azoketara joateari utzi egin genion. Lehen igual bazen urteko uzta saltzeko leku bat, baina orain gehiago da eskaparismoa eta guri lan handia eskatzen digu. Osteko juerga izaten da baloratuena.

**I.A.:** Bai, askotan feriak hala izaten dira. Jai baten parte izaten gara gu ere. Gure kasuan, azokak ematen digu aukera bezeroei produktua aurkezteko eta azaltzeko. Gainerakoan, guk saltzen dugu denda txikietan. Ehun puntutan saltzen dute gure gazta. Denda handiekin ere egiten dugu lan pixka bat,

Eroskirekin eta BMrekin. %85 saltzen dugu Gipuzkoan eta Bizkaian eta Espainian ere saltzen dugu zeozer. Etxetik bertatik ere saltzen dugu zerbait eta gero feria konkretu batzuetan: Elgoibarren abuztuan, Idiazabalen eta Mendaron maiatzean... Gehien-gehien, dendetan, baina.

**Begia Debarrean jarrita, zelan ikusten duzue lehen sektorea bailaran?**

**I.A.:** Ni hasi nintzenetik, uste dut joera beti izan dela negatiboa. Esango nuke gurasoen partetik jaso dugun mezua beti izan dela joan baserritik, ikasi edo hasi tailerrean lanean. Tendentzia horrek jarraitzen du gaurdaino. Sumatzen da jende gazte bat ekiteko ilusioz, baina hasierak oso zailak dira. Lurrarekin arazo handia dago, sekulako prezioa ezartzen diogulako. Elgoibarren ez da jenderik gelditzen lehen sektorean.

**M.A.:** Nik batzuetan esaten dut Iparraldera joatea mozkorraldi moduko bat dela, han laborari eta abeltzainek harro esaten dutelako beraien bizibidea zein den. Soldata ez da iristen funtzionario batenera, baina ez daude hain urrun gizarteko batezbestekotik. Beste egoera bat da.

**I.A.:** Nire ustez badago alde handi bat. Hemen gaztandegi bati eskatzen zaio Garcia Vaqueroren adinako azpiegiturak izatea. Ostera, joaten zara Iparral-





dera eta ikusten duzu artzai bat gazta egiten, txukun, txabola batean eta gastu ekonomiko oso txiki batekin; berak saltzeko baime-na dauka eta guk ez. Esan behar da baita ere gure aldean askoz ere gehiago saiutzen direla borrokatzen han. Gu beti banatzen gara, eta bakoitzak bere gerra egiten du. Frantziako estatuarekin konparatuta, esango nuke oso atzera gaudela.

**Instituzioei zer eskatuko zeniekete?**

**I.A.:** Entzutea eta gure iritzia kontuan izatea, iristen direlako hainbat gai eta beti delako Europak agindu duela edo Ministerioak... Beti da goikoren batek agindu duela eta bai edo bai bete behar dugula; guk esaten dugunak ez du ezertarako balio.

**M.A.:** Nekazaritza ekologikoaren kasuan, existitzen garena kontuan hartzea. Oso eremu eta zenbaki txikiak maneiatzen ditugunez, ez gaituzte kontuan hartzen. Inbertsio handietarako tendentzia egon da eta

## “Azkenengo urteetan txapelketak izen ona eman digu”

**Gaztagintzan markek garrantzi berezia dute, ezta?**

"Idiazabalen barruan ehun eta zazpi ekoizle gaude. Gehiengo handi bat izendapen horren barruan gaude. Hor bakoitzaren markak badu bere garrantzia. Guri azkenengo urteetan txapelketak izen ona eman digu, eta horregatik, jende batek Idiazabal gazta bilatzen du, baina beste jende batek bilatzen du Mausitxa. Horrek aukera bat ematen du merkatuan posizionatzeko. Orokorrean, nahiko ongi ari gara saltzen. Iaz Idiazabal sor-marka gaztarik gabe geratu zen eta aurten ere martxa berdinean doa.

Orain jatorri izendapenaren barruan daukagu Europatik datorren lege bat. Idiazabal gaztak izan behar du Gipuzkoa, Bizkaia, Araba edo Nafarroan egina, ardi latxaren esnearekin egina eta gutxienez izan behar du bi hilabeteko ontze prozesua. Orain, horrez gain, ardi horrek jaten duenak ere lurralde horretakoa izan behar du. Denok ez dugu berdin ikusten. Artzain batzuek jo dute ekoizpen intentsibora, bolumen handiagoa ekoiztera eta ardiertzako erosten duten ia jateko dena kanpotik ekartzen dute. Dira ardi batzuk ia eguzkirik ikusten ez dutenak, urteko zatirik handiena ikuilu barruan ematen dutelako. Gureak urtean zortzi hilabetez kanpoko belar hutsarekin elikatzen dira. Orain, gehienezko kopuru batzuk ezarri nahi dituzte, eta eztabaida sortu da geure artean. Ez dakit zertan amaituko den".

**IÑAKI ANSOLA SALEGI**



zentralizatzekoa ere bai. Ez dute baserrien galera gelditu, joera egon delako pentsatzekoa zenbat eta gutxiago eta handiagoak egon, hobe zela. Berez, tendentziak kontrakoa izan beharko luke: izan behar gara asko, eremu txikiekin edo taldetan batuta. Barkadatea bilatua bada, ederra da, baina beste aukerarik ez daukazunean, ez da hain ona. Horregatik ari dira sortzen ekoizle eta herritarren arteko formulak. **Nola ikusten duzue jarraipena epe ertain edo luze?**

**I.A.:** Ni Diego Simeone modukoa naiz: partidaz partida. (Barreak)

**M.A.:** Aurtengo urtea oso gogorra egin zait, eta kanpoan ordu batzuk lan egiten hasi beharko nintzela pentsatzera ere iritsi naiz. Nekazaritza ekologikoan aitzindari izan zen Lapatza baserrikoak esan zidan: "Eutsi egin behar da!".

Negutegi batzuk gehiago behar ditut. Gaur egun, azaleraren %10a da negutegia. Orokorrean gutxi da eta, aukera izanez gero, beste negutegi bat jarriko nuke, eguraldi txarra egiten duen egunetan ere lan egin ahal izateko.

**I.A.:** Nik orain daukadanari eustearekin nahikoa lan izango dut. Gurasoak adinean aurrera doaz eta euren eskulana egiteko jendea topatzea ikaragarri kostatzen da. Gero daude hurrengo belaunaldikoak; ia horiek zer egiten duten. Ni, etxe honetan, zortzigarren

belaunaldikoa naiz eta azkena izateak ere pena emango lidake, itzelezko pena. Ni ez noa seme-alabei presiorik sartzera, baina ia eurek zer erabakitzen duten. Gainerakoan, lehengo horretan jarraitzea izango litzateke helburu printzipala.

## Laburrean

### Artzain ona izateko garrantzitsuenak?

I.A.: Ardi onak izatea (Barreak).

### Baratzezain ona izateko?

M.A.: Arreta handia jartzea.

### Miresten duzue...

I.A.: Gure ardi arraza: Latxa.

M.A.: Gipuzkoan ekologikoan hasi zirenak.

### Gazta mota bat?

I.A.: Gazta urdina.

### Barazki bat?

M.A.: Aza.

### Azoka bat?

I.A.: Elgoibarko Gabon Zaharretakoa.

M.A.: Azpeitikoa.

### Erreminta bat?

I.A.: Artzain-makila.

M.A.: Labana.



## HAUSNARKETA

**Badakizu euskal dantzak dantzatzen?**

Herritar ugari ari da euskal dantzak ikasten Urrats Dantza Taldeak antolatutako ikastaroan; lau talde egin behar izan dituzte.



LORE BARRAGAN

"Nik ez dakizkit euskal dantzak. Ni dantzan nabil baina Birakan; beste dantza batzuk dakizkit. Plazan, batzuetan esaten didate dantzan egiteko, baina ez dakit zelan egin dantzan; akaso horretarako animatuko nintzateke euskal dantzak ikastera".



TEO RUIZ

Ez dakit euskal dantzarik. Zailak iruditzen zaizkit. Dantzan egitea gustatzen zitzaidan, baina orain ezin dut. Lehen denetik egiten nuen: runbak, pasodobleak, tangoak, baltsa gutxixeago... Orain, niregatik, egingo nuke dantzan, baina ezin dut".



ARITZ ALUSTIZA

"Ez dakit, baina gustatuko litzaidake jakitea. Umetan ez nuen ikasi, anaiak bai. Ni ez naiz plaza gizona. Jakitearren ikasiko nuke, juergarako... Gustatzen zaizkit, banakua, aurrekua... Etxean, amama auzoz auzo ibiltzen zen dantzan eta seme biak ere bai, aspetarrekin".



BELEN ORUESAGASTI

"Batzuk badakizkit, baina asko ez. Umetan ikasi nituen dantzak, baina nire kabuz. Ikusiz ikasi nituen; ez naiz inora joan ikastera. Orain ja gutxi egiten dut dantzan. Baina orokorrean, dantzan egitea gustatu egiten zait, edozein dantza gustatzen zait".

## PUNTUA



XABIER IÑURRIETA

**Ditxosozko ur-xafila**

**J**oan den hileko zenbakian Udalak aurkeztutako presen auziari buruzko erabakia zentzuzkoa iruditzen zait. Nik dakidanez ez da inor aurka agertu, ezta GDI ere. Alderantziz; poztu egin da eta prest dago aurrerantzean elkarlanean jarraitzeko.

Posible da hori? Ezinezkoa ikusten dut. Auziaren irtenbidean parte hartu behar dutenetako inork ez litzuke onartuko GDI-ren oinarrian dauden *Presak ez ikutu* eta *Presak laga bakian* aldarriak, ez gaur, ezta orain dela bi urte ere; are gutxiago etorkizunean, non krisi klimatikoaren eraginez baldintza guztiak okerragora doazen. Oso esanguratsua da arlo honetan "pisua" duen inor ez dela agertzen presak mantentzearen alde. Arrazoi bat ikusten dut jarrera horri eusteko: ibaia gure gustuko paisaia izan behar dela sinistea besterik gabe. Baina ibaiak bizitza propioa du eta haratago begiratu behar dugu.

Irtenbide bat besterik ez dago lehia honetan: ibaiari behar duen protagonismoa eman eta, horren arabera, (seguratasuna etab. kontuan izanda) dagozkion neurriak hartuz, ibai osasuntsuagoa eta gozatzeko moduko ibaiondoa lortu. Izan daitekeena irudikatzen laguntzeko argigarria deritzot Joxean Inurrietaren bitartez [plaentxia.eus](http://plaentxia.eus)-en azaldu zen argazkiari begirada bat ematea. Urak aske eta bizirik.






# Plaza-dantzzen ikastaroa indar betean

Duela bi hilabetetik, dozenaka herritarrek dihardute plaza-dantzak ikasten Adirane Peñagarikano dantza irakaslearekin. Lau taldetan banatuta, astean ordubeteko saioa egiten dute kiroldegian. Helburu nagusia, dantzak ikastea, ondoren plazan dantzatzeko.

Testua: **Egoitz Unamuno eta Ubane Madera**. Argazkiak: **Juan Fernandez**.



railaren amaieran abiatu zen plaza-dantzen ikastaroa kiroldegian, Urrats Dantza Taldearen ekimenez, eta bi hilabeteko jardunaren ostean, 47 herritarrek dihardute asteroko dantza eskoletan parte hartzen. Adirane Peñagarikano urretxuar dantzari gaztea dute irakasle eta, hark gidatuta, astean ordubetez, plazan dantzatu ohi diren euskal dantzak ikasi eta praktikatzeko dihardute: fandango eta arin-arinak, banangoa, jauzi-dantzak, polkak, inauteri dantzak, Axuri Beltza, Altsasu eta abar.

**Lau talde, bi mailatan**

Parte-hartzaile kopurua dela eta lau talde osatu dituzte, bi mailatan banatuta: “hasierako maila, oinarrizko pausoak ikasten dihardutenei zuzenduta dago eta maila aurreratua, berriz, ezagutza handixeagoa dutenentzako da”. Eskolak, asteazken eta ostegunetan izaten dira Antzokian. 19:00etatik 20:00etara bitartean, hasierako mailakoek jarduten dute eta 20:00etatik 21:00etara, berriz, maila aurreratukoek. Parte-hartzaile bakoitza hautatu duen taldeari dagokion egun eta orduan joaten da, baina arautegia malgua da eta, behar izanez gero, ikasleek aukera dute edozein egunetan joateko.

**Formatu erakargarria**

Urrats Dantza Taldeko arduradunen ustez, hainbat arrazoi daude ikastaroak herritarren aldetik izan duen harrera ona azaltzeko:

Dantza saioak Antzokian eskaintzen dira.

Parte hartzaile bakoitzak bere gustuko oinetakoak erosten ditu: abarketak, zapatilak... Badira oinutsik dantza egiten dutenak ere.

**ASTEAN ORDUBETEZ, PLAZAN DANTZATU OHI DIREN DANTZAK PRAKTIKATZEN DIHARDUTE**

**LAU TALDE OSATU DITUZTE, BI MAILATAN BANATUTA: HASIERAKOA ETA AURRERATUA**



Parte-hartzaileen artean adin guztietako herritarrak daude. Gehienak emakumezkoak dira baina badira gizonezkoak ere.

"plazako dantza arruntak erakustea irakasle profesional baten laguntzaz, ariketa fisikoan azpimarra jartzea eta dantza kiroldegiko gainerako ikastaroen formato berean eskaintzea, ikasturte osoan".

Urratsekoen iritziz, emaitzak erakusten du jendeari eskaintza "erakargarria" eginez gero, jendeak "erantzun" egiten duela. Etorkizunean ere, gaiaren inguruko "gogoeta" egiten eta formatu berriak esploratzen jarraitzeko asmoa adierazi dute, beti ere, helburu nagusiak gogoan hartuta: "euskal dantzak transmititzea eta urtean zeharreko dantzako hitzorduetan plazan elkarrekin dantza egitea".

Gaztañerretako erromerian bizitakoa aipatu dute ikastaroak plazara ekar dezakeen bultzadaren adibide modura: "karpako



**LOREA  
ELIZBURU**  
IKASLEA

### **"Pozik nabil, gure artean giro polita dugu eta poliki-poliki bagabiltza ikasten"**

"Beti eduki dut gogoan dantzan ikasteko, baina inoiz ez dut ikasterik lortu. Saiatu izan naiz ikasten beste ikastaro batzuetan, baina beti gelditzen naiz lau pausorekin. Ea bada oraingoan lortzen dudan zerbait gehiago ikastea. Ikastaro hau oso desberdina da. Pozik nabil, uste dut gure artean giro polita dugula eta poliki-poliki bagabiltzala ikasten. Gainera, Adirane irakasleak beste ukitu bat ematen dio dantzari eta eskertzen da".



**VERONICA  
GALARRAGA**  
IKASLEA

### **"Kosta arren, ondo dago dantza berriak ikastea, beti berdinak ikasi beharrean"**

"Dantzan eta kantuan egitea asko gustatzen zait, erromerietan eta herriko jaietan parte hartzeko ere nahi dut ikasi. Orain dela urte batzuk ibili nintzen goiko eskolako patioan, urtebetean-edo, ikasitakoa ez ahazteko ere banabil, eta hori saiatzen naizela plazan-eta dantzan egiten erromeriak daudenean. Dantza berriak ikastea ondo egoten da, kosta egiten zaigu pixka bat, baina hor gabiltza, beti berdinak egiteke, ondo dago berriak ikastea".





erromerian dozenaka pertsona fandango eta arin-arina dantzatzen ikustea ederra izan da. Hain zuzen, horixe da ikastaroaren helburua, urtean zehar herrian ditugun dantza hitzorduak indartzea, esaterako: Euskal Aratusteetakoa martxoan, Ezoziko Erromerixa Egunekoa ekainean, Santiago Santa Ana jaietakoa uztailean eta asmatuko ditugunak".

**Izen-ematea zabalik**

Ikastaroan izena emateko aukera zabalik dago ikasturte osoan. Hileko kuota 18 eurokoa da eta izena emateko bi bide daude: online fitxa betetzea (ikus lotura ondoko QR kodean) edo bestela 605706086 telefonora idaztea.



**Izena emateko fitxa**



**IRATXE BENITO**  
IKASLEA

**"Hemendik izerditan blai ateratzen gara"**

"Dantza beti gustatu izan zait. Txikitatik ikasi nuen fandangoa eta arin-arina, baina beste dantza batzuk nituen ikasteko, aukera agertu da eta apuntatu naiz. Pentsatzen genuena baino jende gehiago apuntatu gara eta azkenean, lau talde gara. Ni oso gustura nabil, gainera beti ikasi nahi izan ditudan dantzez aparte, beste denak ikastea gustura hartzen da. Gainera, dakizkizunak ez ahazteko ere balio du. Hemendik izerditan blai ateratzen gara".



**AINHITZE ARANTZETA**  
IKASLEA

**"Dantza koreografiekin-eta erakusten du eta horrek freskotasuna ematen dio"**

"Beti gustatu izan zait dantzan egitea, orain aukera nuen ikasteko eta animatu egin naiz. Txiki-txikitan ibilita nengoen dantzan, baina ya ahaztuta neukan ikasitako dena. Ikastaro honetan gustura nabil, giro polita dugu gure artean. Dantza modu desberdinean erakusten du gainera, koreografiekin... eta horrek freskotasuna ematen dio. Gainera, ezetz dirudi baina kirola ere egiten dugu. Lehen egunetan agujetak eta guzti izan nituen".

# "Dantzari kirol puntu bat ematen diot eta badirudi jendeari hori gustatzen zaiola"

**ADIRANE PEÑAGARIKANO** DANTZARIA ETA DANTZA IRAKASLEA

Dantza ikastaroan dihardutenek ez dute saltzeko Urretxutik etortzen zaien irakasle gaztea. Adirane Peñagarikano (Urretxu, 1998) da bera eta indarra darie bere dantza eskolei.

## **Oso gustura dituzu ikasleak zure eskoletan. Zein da sekretua?**

Gustatzen zait dantza ematea baina kirol puntu batekin. Hauek eskatzen zidaten izerdi pixka bat ateratzea eta ikusten da horrekin gustura daudela eta gehiago eskatzen dute. Ordubate daukagu eta ordubate horretan ez dira gelditzen.

## **Dantzarekiko duzun pasioa transmititzen duzulako ere izango da akaso?**


Pasioa ez dakit den. Niri erakustea gustatzen zait, dakidan guztia erakustea gustatzen zait eta, pasioa baino, barruan dudan indarra edo energia. Badirudi gustatzen zaiela kaña sartzea.

## **Ohikoa da hainbeste jende dantzan ikasten?**

Nik ez nuen espero. Eurek eskatuta etorri naiz, baina beste herri batetik nator, ez ninduten ezagutzen. Bi klasetik lau izatera pasatu gara eta pila bat eskertzen da.

## **Zeu Soraluzen zelan?**

Ikasleekin-eta gustura; ondo hartu naute, talde bakoitza ezagutzen nabil eta ondo. Aukera hau ematea asko eskertzen dut.



## **Dantza ikasle asko bai, baina emakumeak gehienak. Hori horrela da leku guztietan?**

Bai, tamalez edo ez, horrela da. Hemen mutilak bost bat-edo baditugu, gutxi da, baina beti gertatu izan da horrela. Akaso txikitan ez, baina 10 urterekin-edo mutilek laga egiten dute eta neskek jarraitu egiten dute.

## **Zer beharko litzateke horri buelta apur bat emateko?**

Nik dantza tradizionalaz gainera, koreografia ukitu batekin ematen dut eta gazteei gustatzen zaizkie halako saltsak. Eta nik uste dut sartu beharra dagoela. Hemen, adibidez, apuntatu da nire adineko jendea helduagoekin batera, eta, elkarrekin ari dira euskal dantzak ikasten edo praktikatzen. Kirola egin, baina euskal dantzekin. Edo euskal dantza sustatzeko kirol puntua eman. Hori ere bai.

## **Beste nonbait ere bazabiltza?**

Lehenago Bergarako Musika Eskolan ibili nintzen haur, nerabe eta helduei ematen urtebetez eta gero berriro. Baina ordezkapena zen. Gero hau atera zen, eta orain hemen.

## **Dantzatik nahiko zenuke bizi?**

Bergaran oso gustura egon nintzen eta hemen ere bai. Pena astean birritan bakarrik dela, baina zaila da gehiago lortzea.



"JENDEA KONTURATZEN DA ZENBAT GAUZA EGIN DAITEZKEEN EUSKAL DANTZAKO PAUSOEKIN"

**Dantzarik gustukoena? Eta zailena?**

Bietan dantza soltea.

**Non gustatzen zaizu dantzan egitea?**

Beti gustatu izan zait oholta ganean dantzan egitea.

Publikoa gustatu egiten zait.

**Dantza ikasita, komeni da hori plazara eramatea?**

Nik beti animatzen dut jendea. Beti esaten dut, egingo dugu koreografia txiki bat eta plazara eramango dugu. Gustatuz gero, hori atera egin behar da, erakutsi egin behar da eta gehiago euskal dantza, galtzen ari delako, plazaratu egin behar da. Akaso tradizionala jendeak ez du hainbeste ikusten baina euskal dantza pixka bat fusionatzen baduzu, euskal dantza eta koreografiaren bat sortu, jendea konturatzen da zenbat gauza egin daitezkeen euskal dantzako pausoekin.

**Zer nahiko zenuke Soraluzeko ikasleekin lortu?**

Dantza soltea ikastea.

Urtebetean oso zaila da, baina jarraituz gero... Batzuekin ari gara, hori eskatu didate eta gustatzen zaie. Horrekin koreografia bat egin nahiko nuke. Hori oso polita gelditzen da.

**Besterik nahi baduzu gaineratu...**

Ekainean zeozer egitea aurreikusten da. Txikia, baina oholta gainera ateratzeko zeozer prestatuko dugu.



# Igeriketa, lagun artean

HAMAR HERRITAR DAUDE HELDUEN IGERIKETA IKASTAROKO TALDEAN

**TESTUA:** ANDER GOMEZ

Astearte eta ostegun arratsaldetan, herritar kuadrillatxo batzen da kiroldegiko helduen igeriketa saioetan. Maila altuko ikastaroa da eta "intentsoa" den arren, taldean sortutako "giro polita" nabarmendu dute, bai monitorea, bai ikasleek.

## Igeriketa estilo guztiak praktikatzeko aukera

Krola (*crawl*), bularrekoa (*brasa*, igela) eta bizkarrekoa (atzeraka) dira gehien lantzen dituzten modalitateak. Iratze Agirregomezkorta monitorea azaldu bezala, bularreko ariketak "lasaiak" izaten dira, krolekoak "intentsoak" eta bizkarrekoak "erdi bidekoak"; eta, horiek txandakatuz, "nolabaiteko oreka bat lortzen da".

Baina bestelakoak ere lantzen dituzte, hala nola: tximeleta-era "bihotzari erresistentzia emateko" eta urpeko igeriketa edota apnea, "biriketako ahalmena indartzeko".

## Estilo bakarra klase bakoitzean

Saioak monitorea aukeratutako modalitate bakarrean zentratzen dira, horren inguruko ariketa konketuak landuz: ze posizio eraman behar den, noiz hartu behar den arnasa... Batez ere, ondo arnasten ikastearen garrantzia azpimarratzen du: "Kuriosoa da, normalean



Ikasleak iazko Ondarruko itsas-lasterketan lehiatu ostean. IRATZE AGIRREGOMEZKORTA

sudurretik hartzen dugu arnasa eta ahotik bota; baina uretan — orokorrean— kontrara egin behar da, ahotik hartu eta sudurretik bota".

## Ikasleei egokitutako saioak, talde ikuspegitik

Ikasleetako batzuk arnas kontu hori landu beharra daukate, beste batzuk hankak, edo deslizamendua (igeri egiterakoan ahalik eta gutxien urik gutxien mugitzea, Agirregomezkortak dioen bezala "ur gainean mugitzen den hostotxoa legez"). Behar

horiek guztiak hartzen ditu kontuan monitorea eta horren arabera saioak prestatzen. Hori bai, klase orokorretan beti, "ikasle guztiak kontrolatuta izateko, talde osoa maila berean egon dadin eta ertz guztiak ikutu ditzaten, ez bakoitzari interesatzen zaiona bakarrik".

## Salbuespena hasiberriekin

Aurtengo ikasturtean 4 lagun apuntatu dira eta, kasu hauetan, maila neurtzen zaie aurretik ("soroslearekin egin dezakete, orduz kanpo igerilekura bertaratuta, beste barik"). Behin ikastaroa hasita ere, arreta berezia jasotzen dute, aparteko kale batean eta egokitutako ariketekin. "Baina hilabete eskas bakarrik, segituan lortzen dute gainontzekoen nibelera ailegatzea!".

## MAILA ALTUKO IKASTAROA DA ETA TALDEAN SORTUTAKO 'GIRO POLITA' NABARMENDU DUTE



Helduen igeriketa ikastaroko ikasleak Araneko igerilekuan. EGOITZ UNAMUNO

**Plazak beteta daude, baina badago beste talde bat sortzeko aukera**

Irailen batutakoekin topera ailegatu dira: "Lau kale izanik 10 plaza eskaini ditzakegu gehienez, erabiltzaile arrunt bat igerilekura sartuz gero, hark ere bere tokia izan dezan".

Dena den, ikastaroaren itxarote-zerrendan nahikoa herritar egonez gero, udalarekin bildu eta beste talde bat aktibatzen saiatuko liratekeela azaldu dute. "Ez da erraza, lekuaren, orduen eta monitorean disponibilitatea bateratu behar direlako, baina lor daiteke".

**Ikasleen arteko pike sanoa**

Ikasle bakoitzak bere helburuak ditu (batzuk abiadura lortu nahi dute, kilometroak egin, bestetzuk itsasoko igeriketarako prestatu...) eta horien bueltako pikeak dauzkate, baina diotenez "beti ambiente onean".

**Urte amaierako proba (eta ospakizuna) Ondarrun**

Hala ere, badago guztiek konpartitzen duten erronka bat: Ikasturte amaieran, uztailea aldera, Ondarrun ospatzen den itsas-lasterketa. Hitzordua tradizio bihurtu da helduen igeriketa ikastaroko taldean. Bertan lehiatzen dira urte osoan ikasitakoa praktikan jarriz eta ostean, merezitako bazkaria egiten dute guztiek batera.

# Koska bat gorago

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO.

**ARGAZKIAK:** GAIZKA AZKARATE ETA JOSUNE ARAMENDI.


Blues Hotsak jaialdiaren 6. edizioak arrakastaren osagai guztiak izan ditu: musikari onak, partaidetza handia eta bisitarien hazkundera, herriko tabernen eta taldeen parte-hartze zuzena eta herritarren memorian gelditu diren momentu ahaztezinak... Pozik antolatzaileak, pozik musikariak eta pozik musikazaleak.

Errabal Kultura Elkarteak eskerrak eman dizkie denei: teknikariei (Txabi Labaien gogoan), brigadako langileei, Udolari eta Musika Eskolari, "egindako lanagatik".

Pil-pileani helarazitako *Baloraziorako apunteak* idatzian nabarmendu duten moduan, "bihotzez serio lan egiten denean, helburuak lortzen dira lehenago edo beranduago. Eta hori da gertatu dena Blues Hotsak musika jaialdiaren seigarren edizioan. Muga goitu egin da eta hemendik aurrera Blues Hotsak kontutuan hartzeko izena izango da Euskal Herriko -eta kanpoko- kalitatezko musikazaleen artean".







# "Koadro bat saldu, kondor bat egin eta proiektu bat atera zait"

GORKA JAUREGI ARTISTA ETA ESKULANGILEA

---

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: U.M. ETA GORKA JAUREGI

---

Gorka Jauregi (Soraluze, 1983) Lanzaroten dago ekainetik. Surf irakasle modura joan eta orain, kondor andino mekaniko bat bukatzen dabil.

## **Zelatan zabilta kondor bat egiten?**

Lanzaroteko diseinatzaile bat ezagutu nuen. Berak lan egiten du animaliak dituen *Rancho Texas* parke tematikoan. Akuaparka, espektakuluak... ere baditu. Nahi zuten parkean kondor andino baten erreplika erakutsi eta niri eman zidan enkargua. Bi hilabete daramat hura lantzen, abenduan

bukatuko dut. Material mordoaz egingo dago, egurra, metala, erretxina, zuntza, engranajeak, margoak, igeltsua, soldatu egin dut...

## **Ofizio pilo dago hor.**

Denetik egiten dut.

## **Kondorren ereduak nondik hartu duzu?**

Parkeko albaitariak eman zidaten kondorren ezaugarrien, fisionomiaren... berri, datuekin zein argazkiekin. Beste dena nik egin dut.

## **Kondorraz aparte, bestelakorik egin duzu Lanzaroten?**



Gorka Jauregi berak egindako bi lanekin, skate gunean.

Bi furgoneta kanperizatu, Cesar Manriqueren museoko fatxada konpondu, pare bat etxetan konponketak, surfeko eskolak... Orain, ingeles batek nire koadroetako bat nahi du eta artista italiano batek, berriz, kolaborazio bat, sumendiei buruzko proiektu batean. Hiru dimentsiotako obra bat izango da. Bestela, nire kontura egiten ditut gauza gehienak. Erreminta daukat eta lan ugari dago. Artelanetan ere errazago ikusten dut. Bost hilabetean saldu dut koadro bat, kondor

bat eta proiektu hau irten zait. Bestalde, hango kabiloari -udalari- kondorren lana erakutsi nion; han dago putre bat bertakoa, sai zuria -guirre-; bat egin nahi du udalarendako. Kultura kontsumitzeko bastante ohitura dago.

## **Baina zelan bukatu duzu han?**

Joan nintzen surfeko eskolak ematera, Zarauzko lagun bati deitu zioten eta hark niri. Urteak daramatzat surfa afizio modura izaten.

## **Noiz arte segituko duzu Lanzaroten?**








Lanzaroten egiten ari den kondorra.



Surf eskolak ematen.



Jauregik berritutako mentsula.



Itsasoa irudikatuz.

Hiru hilabeterako joan nintzen eta han nago. Irailera arte, berez. Topatu dut etxe bat alokairuan, eskuragarri, eta oraingoz han geratuko naiz.

#### **Eta gero?**

Errealista naiz. Artelanetatik bizitzea ez dut horren erraza ikusten, baina lanak irteten direnean, gustura egiten ditut eta ongi etorri. Dena den, furgonetak muntatzea eta etxeko konponketak egitea gustuko dut. Nire kabuz lan egitea dut gustuko.

#### **Noiztik egiten dituzu artelanak?**

Gaztetatik gustatzen zait espresioa, margotzea, musika... barneko komunikazioa. Uste dut denok dugula hori; triste, haserre... bazaude entzuten duzu musika bat edo beste bat. Beti gustatu izan zait gauzak sortzea, etortzen zaizkidan ideiak garatzea. Bestalde,

**"BETI GUSTATU IZAN ZAIT GAUZAK SORTZEA, ETORTZEN ZAIZKIDAN IDEIAK GARATZEA"**

horrenbeste gauza lantzen ditudanez, akaso ez naiz aditu izango gauza bakar batean; denetik ukitzen dut eta teknika desberdinak nahasten ditut. Baina azkenean, konturatzen zara dena dela antzerakoa. Nire kontura ikasi dut, kuriozkoa naizelako. Kuriositateak erakartzen banau, sakondu egiten dut.

#### **Soraluzen, non egiten duzu lan?**

Lokal txikitxo bat daukat. Erreminta daukat eta makinak egiten ditut, adibidez, debastadore bat egur xaflak fintzeko. Fresatzaile bat moldatu nuen horretarako. Merkatuan 40.000 euro kosta dezake halako batek.

#### **Zelan eskura daitezke zure lanak?**

Instagram bitartez mezua bidalita. @txurtart da helbidea.

#### **Eta musikaria ere bazara, ezta?**

Hobby moduan. 14 urte nituenean, gaztetxeko beheko solairuan jendea ibiltzen zen jotzen eta arreta eman zidan. Baxu batekin hasi nintzen, baina gero, Bergarako lagun batzuekin hasi nintzen, haiek esan zidaten gitarra jotzeko eta orduan gitarrarekin Dena nire kabuz ikasi dut.



## ZERBITZUAK

### ZORION AGURRAK



**Itziar Gantxegi Unanue**

Azaroaren 12an 69 urte. Muxu handi bat etxeko danon partez, bereziki Xuban, Ander, Sara, Zuhara, Sofia eta Julen.



**Julen Muñoz Iñurrieta**

Abenduaren 6an 5 urte. Izugarri maitxe zaitzugu. Familixa danan partez baina bereziki Sara.



**Ikerne Martin**

Abenduaren 2an 10 urte. Zorionak Ikerne, 10 urte! Muxu handi bat etxeko. Ondo pasa zure eguna. Maite zaitugu.



**Jon Agirre**

Abenduaren 5ean 45 urte. Zorionak Jon, etxeko guztien partez! Asko maite zaitugu.



**Izar Uzin**

Azaroaren 24an 10 urte. Familixa guztian partez zorionak potxola!



**Edurne Martin**

Abenduaren 9an 6 urte. Zorionak, Edurne! 6 urte! Ondo pasa zure eguna. Maite zaitugu.



**Inar Murguzur Gabilondo**

Abenduaren 5ean 6 urte. Zorionak mutil handi!!! Etxeko partez muxu potoloa.



**Markel Lizarralde**

Azaroaren 10ean 13 urte. Zorionak txapeldu! Pila bat maite zaitzugu! Familia

### ESKELAK

#### X. URTEURRENA

## Jose Luis Ariznabarreta Aizpiri



2014ko abenduaren 18an hil zen.

Betiko izango zaitugu gogoan.

Etxekoak.

### HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

#### Hildakoak

Maria Miguel Rubio  
Ines Davila Romero  
Cesareo Rodriguez Taboada  
Maria Anunciacion Yudego  
Cuadrado  
Ihab Lahlassa

#### Jaiotakoak

Saioa Unanue Varela  
Maule Laskurain Azkarate

**administradores** Centro Vasco de Estudios de Administración de Empresas y del Sector Público, Administrativo y Social de Bizkaia



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

*Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna  
Alcala de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

Zuzendaritzako karguak berriterra doan komunitate batean bizi naiz. Garajea elementu banaezin moduan ageri da estatutuetan. Jakin nahi nuke garajeetako jaberaren bat izan daitekeen zuzendaritzako presidente edo idazkari. Gainera, garaje jabe batzuk beraien plaza itxi egin dute, hormak elementu komunetan eginez. Ez dutenez baimenik eskatu, jakin nahi nuke garajeen komunitateko baimena behar duten edo eraikin guztiko komunitatearena.

Hasteko, garaje jabeen artean aukeraturako bat izan daiteke presidente edo idazkari batzarretara joan eta bozkatzeko. Ordezkarria eraikineko etxejabeen batzordeak aukeratu behar du. Bigarren galderari dagokionez, garaje bat ixtea garajeen komunitateari dagokion ekinza da, beraz, Kode Zibileko Ondasunen komunitatea arautzen duten baldintzen arabera aztertu behar da. Printzipioz, ekinza hori printzipio horien kontrakoa da, baina beharrezkoa da Ondasunen Komunitateko barne araudia ezagutzea seguru egoteko. Obra horrek ez badie kalterik egiten elementu komunei, Etxejabeen Komunitate Orokorrek ezingo du horren kontra egin, etxejabe batek bere etxe barruan horma bat jartzen duenean egiten ez duen bezalaxe.

**ONDORIOA: Eman dituzun datuen arabera, ez du ematen hormak elementu komunetan jarri izanak eraikinaren segurtasun eta erresistentziari eragiten dionik. Kontrara balitz, Komunitate Orokorrek, Garajeetako Komunitateak edota edozein etxejabe norbanakok erreklamatu ahaliko luke horma bertan behera lagatzea.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



**ODR**  
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako leihoen, pertsiak, atsek, barandiak salmenta eta korporaketa

**ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA**

T. 662 234 609  
Bager Erenka Kalea 2 - 30090 SORALUZE  
e-mail: odrleihoak@gmail.com

Sukalde tradizionala

**Armendi Jatetxea**

Eguneko menua  
Asteburuetan menu berezia  
Karta  
Burduntzian erretako bildotsa  
Etxeko Irtoak  
Soufla

Tel: 943 75 10 02



**ELIZPE HORTZ KLINIKA**

Zure gertuko hortz klinika, punta-puntuko teknologia eta egiten dugun Cad Cam sistema bertatik arazatzen dugu.

Elizburu, 3 behea  
SORALUZE  
Tel: 943 75 25 67  
Bilag: 943 42 78 19  
e-mail: elizpe3@gmail.com

Ordutegia:  
Astelehenerik ostiralera  
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00



Soraluzeko Kooperatiba Elkarteak  
1910etik ezabak

Arraindegia, janaria, errapak, etxeko tresnak, etxera eramateko zerbitzua

Astelehenerik ostiralera:  
09:30 - 12:30 eta 15:00 - 19:45  
Larunak: 09:30 - 13:00

Kalebarren 4  
Tel: 943 75 13 45



**HNOS. BENITO ANIZK**  
MUEBLES-ALTZARIARIK

Sukaldeak, logelak, egongelak, neurrirra egindako altzariak...

Santa Ana, 26 - Tel: 943 75 20 47



**Txoko**

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgerak, ogortak, nativak, pizza, gaztaria...

Entzuguak afitan dira  
Tel: 943 75 17 00



**IZXGURRE**  
Igeltzeritza

Erakin berriak • Kalitateko emaitza  
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913



**ARRANO**  
taberna

Etxe eta goxatu etxeko pintxoak

Etxaburueta 4



**Kontugest**  
GROUP

Aholkularitza fiskala • Kontabilitatea  
Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa  
Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak

www.kontugest.com



**BOLIA**  
TABERNA

Pirxoak, arinak, konbinatuak  
Gazte-giroko festa



**MENDIZABAL**  
okindegia

Ogla - Prentsa - Goxariak

Astelehenerik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbetak eta igandek  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel: 943 75 13 99



**SORALUZE MOTOR**

Mendiola ind. 13  
Soraluze

476 556 817 - 943 75 21 38



**KM design**  
Kitu Muntatzen

943 75 99 85

koruntzako@yahoo.es  
www.kmdesign.es

Pol. Amalaga 5  
BERGARA

Disenuetako Fabrikazio lanak

Sukaldeak  
Horma-oinarriak  
Logelak  
Zoruak  
Atsek...

Arotzeria lanak oro har  
Instalazioak



**FOGASLER**  
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Diala)  
fogasleriturgintza@gmail.com



Bidelagun euskaltzaletasunean

**SOMABE** Supporting your projects

**aras**

**ALBISUA** S.L.

**laibi** ELECTRICIDAD







# BIRZIKLATU

latak, brikak eta plastikozko  
ontziak edukiontzi horian eta  
egin bat ekonomia zirkularrekin



**DebaBarrena**  
*Denona da, izan garbi*



**ecoembes**

Lankidetzaren indarra